



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO MAIATZAREN 31N
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- 2022/05/06KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek 2022ko maiatzaren 6ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ONDAREGI XXI, S.L. ENPRESARI, ATALLU INDUSTRIALDEKO ATALLU KALEA 2-4AN TELEKOMUNIKAZIO-EKIPOEN EKOIZPENERAKO JARDUERA EZARTZEKO PABILOIA ERABERRITZEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2021-0311

ONDAREGI XXI, S.L. enpresak, Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera ezartzeko pabiloia eraberritzeko obretarako udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	690.310,19 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.879,33 €
	Fidantza (%120): 3.455,20 €

AURREKARIAK

Alkatetak, 2022ko urtarrilaren 14an, 2022/32 zenbakidun dekretuarekin, zera erabaki zuen: ONDAREGI XXI, S.L. enpresari, Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an kokatutako pabiloia eraberritzeko obretarako baimen partziala ematea.



Usurbilgo Udala

HONDAKINEN KUDEAKETA

112/2012 Dekretuak araututako obra izanik, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen, eraispenean sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko helburuarekin, ONDAREGI XXI, S.L. enpresak 3.455,20 €-ko fidantza jarri zuen 2022ko urtarrilaren 17an (IE 1-2022).

JARDUERAREN IZAPIDETZEA

DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL. S.L. enpresak, Atallu kalea 2-4an ezarri nahi duen telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera aurkeztu zuen, dagokion izapidea izan zen.. (Esp. Zenbakia: HZ.07/2021-0171).

Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 229. zenbakia, 2011ko abenduaren 2an). Jendaurreko epealdian ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2011ko abenduaren 26an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 4565 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera. Bere txostenean honako baldintzak ezarri ditu:

- Sukaldea ez dago jantoki/self service gunetik behar adina isolatuta.
- Garbiketa eremua self service gunetik behar bezala isolatuta egon beharkoda, kutsadura edo zipriztinak saihesteko, eta aireztapen egokia eta nahikoaizan beharko du.
- Biltegia sukalde eta prestaketa esparrutik erabat bereizi behar da.
- Establezimenduaren arduradunak jantoki kolektiboaren jarduera jakinaraziegin beharko du tramitazio elektronikoaren bidez edo Osasun Publikoko Tolosa-Goierri eskualdera bertaratuz (Nafarroako Etorbidea,6 - 20400 Tolosa;Tel. 943 02 40 24).
- Aurrez aipatutakoez gain, ondoko araudian jasotako baldintzak bete beharko dira:
 - 3484/2000 Errege Dekretua, abenduaren 29koa (EAO 11, 2001-01-12koa),janari prestatuak lantzeko, garraiatzeko eta saltzeko higienearauak ezartzen dituen.
 - Agindua, 2002ko martxoaren 15ekoa, Osasun sailburuarena, jantoki kolektiboak eta azken kontsumitzailearentzako janari prestatuak egiten dituzten establezimendu ez industrialak sailkatzeko eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bete behar dituzten neurri sanitarioak finkatzeko dena.



Usurbilgo Udala

Tokiko Gobernu Batzarrak ere, 2012ko urtarrilaren 31n aldeko informea eman zuen.

Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri zituen. Honakoak hain zuzen:

1. Erakunde Tekniko aginpidedunek oro har aplikatzeko ematen dituzten berariazko arauak bete behar dira.
2. Sustatzaileak jarduera ezarriko deneko partzelako lurzorua erabiltzeko gaitasuna deklaratzeko duen Ebazpenean ezarritakoak bete beharko ditu.
3. Etorkizunean partzelaren mugen barruan hondeaketak edo lur mugimenduak aurreikusten dituzten obrak burutuko badira, sustatzaileak Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeak ezarritako dagokion lurzorua kalitatearen arloko deklarazioa izapidetu beharko du.
4. Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeko 22.2. artikulua adierazitakoaren arabera, lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik antzematen bada, egoera horren berri berehala eman behar zaie Udalari eta Erkidego Autonomoko ingurumen- organoari.
5. Pabiloiaren zorua iragazgaitza izan beharko da.
6. Jarduera pabiloiaren barruan burutuko da beti eta zaratak ahalik eta gehien murrizteko eran. Pabiloiko ateak sartu irtenak ahalbidetzeko beharrezkoa den denbora tarte motzenez egongo dira irekita soilik.
7. Zarata kutsadura saihesteko neurriak jarriko dira martxan, eragin akustiko txikiagoa duten teknologiak aplikatuta, kontuan izaki Eskuragarri dauden Teknikarik Onenak, hau da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarri diren eta kutsadura gutxien sortzen duten teknologiak, eta aintzat harturik zarataren igorlearen ezaugarriak. Jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko, urriaren 16ko, 213/2012 Dekretuko 51. artikuluan aipatutako zaratafoku berriei aplikatzeko muga-balioak eta bat datorren gainontzeko araudikoak beteko ditu.
8. Dardarak aldameneko nabe eta lokalen egiturei transmititzea ekiditeko, beharrezkoa den makinerian dardaren aurkako elementu gokiak ezarriko dira.



Usurbilgo Udala

9. Jarduerak sor dezakeen kutsadura atmosferikoa murrizteko eta auzokideak gogaitu ditzakeen usainik ez sortzeko, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu titularrak instalazioen diseinuari eta ustiapenari dagokienez
10. Saneamendua banatzailea izango da eta ondo definituak eta independenteak izango diren ondoko sareak edukiko ditu:
 - Pabiloiaren estalkietako urak jasoko dituen poluitu gabeko euri-uren sarea.
 - Komunetako uren sarea. Bertako isuriak saneamendu-sarera konektatuko dira.
11. Aipatutako isurketak baino ez dira existituko.
12. Jarduerari ekin aurretik, titularrak kolektorera Isurtzeko Baimena, erakunde aginpidedunek emandakoa, aurkeztu beharko du Udalean.
13. Sortutako hondakinak, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legean ezarri- takoaren arabera kudeatuko dira udal-araudiaren kalterik gabe.
14. Espreski debekatuta geratzen da sortutako hondakin tipologia desberdinak nahastea, nahiz arriskutsuak zein ez arriskutsuak izan. Hondakinak jatorrian banatuko dira eta aipatutako nahasketak ekiditearren hondakinak jasotzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak eduki beharko dira.
15. Hondakinen sorkuntza ahal den heinean murriztu beharko da. Sortzen diren hondakinak uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 8 artikuluan ezarritako hierarkiak adierazitako lehentasunaren ordenarekin kudeatuko dira, hau da: prebentzioa, berrerabilpenerako prestaketa, birziklapena eta beste balorizazio mota batzuk, balorizazio energetikoa barne. Arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik aipaturiko prozedurak aplikatu ezin badira, ingurumenaren gaineko eragina ekidin edo ahal bezain beste murrizteko eran eliminatuko dira.
16. Sortutako hondakin ez arriskutsuei buruz (plastiko, paper, karto, egur, beira hondakinak, hondakin metaliko ez arriskutsuak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakin ez arriskutsuak etab.), hondakinak lehen aldiz kudeaketa-instalazio batera eraman aurretik jardueraren titularrak hondakin ez arriskutsuen adierazpena egin beharko du. Horretarako hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko, otsailaren 24ko, 49/2009 Dekretuko VI. eranskinean agertzen den inprimakia erabili beharko du. Europako Hondakinen Zerrendan (EHZ) ispilu sarrera bat daukaten hondakinak arriskutsuak edo ez arriskutsuak diren jakiteko karakterizatu egin



Usurbilgo Udala

beharko dira eta emaitzaren arabera era egokian kudeatu.

17. Makineriaren mantenu lanetako olioien hondakinak, konpresoreko purgetako urak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakin arriskutsuak eta orokorrean arriskutsu kontsideratutako gai/prestakinen hondakinak sortzekotan, horiek gorde dituzten ontziak, kutsatutako iragazkiak, xurgatzaileak, trapuak eta kotoiak, eta hodi fluoreszenteak, merkuriozko lanparak etab. deuseztatu nahi izatekotan, dagozkien baldintzak betez jasoko dira, hau da, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legeak, Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko, otsailaren 20ko, 110/2015 Errege Dekretuak eta hondakin arriskutsuei buruzko gainerako araudian ezarritakoa jarraituz. Hondakin arriskutsu horiek biltegitratuta dauden denboran behar bezala etiketatuta egongo dira, teilatupean eta zoru iragazgaitzaren gainean eta egon daitezkeen isurketa akzidentalak atxikitzeke sistema bat edukiko dute.
 18. Aipatutako uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta izaera sektorialeko gainontzeko araudiak ezarritakoaren kalterik gabe, hondakinen sortzaile aurre- komunikazioa aurkeztu beharko da jarduera abian jarri aurretik Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan. Komunikazio honen edukia Legearen VIII eranskinean aipatutakoa izango da.
 19. Sortutako hondakin arriskutsuak mantenu lanetan hirugarren batzuek sortutakoak besterik ez badira, eta hauek hondakinak euren kargu hartu eta eurenak balira bezala kudeatuz gero, puntu hori bi aldeek sinatutako kontratuan agertu beharko da. Kontratu hori da uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan adierazitako komunikazioa egitetik salbuesteko eskaera egiteko enpresak aurkeztu beharko duena.
 20. Sustantzia arriskutsuen biltegitratze eta manipulazioa euren arteko bateraezintasuna kontuan izanik eta segurtasun datuen fitxen argibideak jarraituz egingo da. Material horientzako iragazgaitz, erresistente eta eraldaezin izango den lurzoru gainean biltegitratuko da, euri urekin kontaktua edukitzea ekidingo da eta isurketak atxikitzeke sistema bat edukiko du.
- Isurketa baten ondoren atxikitzeke kubetoak berehala hustuko dira eta isuritako likidoa leku egokian biltegitratuko da berriro.
- Haizea, uholdeak, euria edo ibilgailuen joan-etorrien ondorioz produktuak biltegi gunetik kanpora arrastatzea edo isurtzea ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira.
21. Likido kutsakorren isuriak sor ditzaketen makineria eta instalazioek



Usurbilgo Udala

likido horien atxikipenerako sistema estanko bat eduki beharko dute eta hauen ekintza fisiko eta kimikoari eutsi. Sistemaren bolumena atxikiko dituen likidoek gainezka egitea ekiditeko adinakoa izango da. Kubetoan atxikitako isurketak sortzen direnean jasoko dira, eta aurreko neurrian deskribatutako baldintzetan biltegiatuko dira kudeatzaileak jaso arte, horrela kubetoa uneoro hutsik eta funtzional egon dadin.

22. Titularra PCBak dauzkaten edo eduki ditzaketen aparatuen edukitzailea baldin bada, transformazio zentroaren edukitzaile kasu, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak, eta hauek dauzkaten aparatuen eliminatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen, abuztuaren 27ko, 1378/1999 Errege Dekretuak adierazitako baldintzak bete beharko ditu haien kudeaketa egokia burutzeko.
23. Garbiketa, konponketa eta instalazioen bestelako mantenu lanak, hondakinen, isurketen edo emisioen sorrera murrizteko eran burutuko dira.
24. Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.
25. Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.
26. Proiektuan jasotzen diren zehaztapen eta neurri zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, beti ere aurrez aipatutako neurrien aurka ez doazenean.
27. Txosten honetan ezarritako neurri zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira, jardueraren funtsezko edozein zabalkunde edo aldaketa izapidetu egin beharko da, horretarako Udalean dagokion izapidetzea egin beharko delarik, dagokion lizentzia lortu xedez.
28. Txosten hau eta honen ondoren udaleko sailkatutako jarduera lizentzia emateak ez die amaiera jartzen sustatzaileak aintzat hartu behar dituen ingurumen arloko eginbeharrei. Horrela honek, bere jarduera funtzionamenduan mantentzen den denboran zehar, hasieran baimendutako jarduera egokitu egin beharko dio indarrean sartzen doan, eta aplikaziokoa zaion, araudi berriari.

3/1998 Legearen, otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 59.2 atalak agintzen duenez, zuzenketak ezartzeak Udal-Agintaritza behartu egiten du, honek jardueraren lizentzia emateko administrazio ekitaldian sartu behar dituelarik. 64. 1 artikulua araberako Udalei dagokien jarduera sailkatuak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak eraginkortasunez gauzatzeko eskumena.



Usurbilgo Udala

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Carlos Arroita Martinez jaunak, aurkeztutako proiektua aztertu ostean, 2022ko maiatzaren 17an ALDEKO txostena eman du.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: ONDAREGI XXI, S.L. enpresari, Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera ezartzeko, pabiloia eraberritzeko obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- ASMATU S.L. taldeko Jokin Idarreta Cardona ingeniariak 2021eko martxoan idatzitako Exekuzio Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Ezarri nahi den jarduerak Eusko Jauraritzako Ingurumen Sailak ezarritako neurri zuzentzaileak eta Osasun Sailak ezarritako baldintak bete beharko ditu ezinbestean, beraz aintzat hartuko dira obra burutzerakoan.
- Usurbilgo Arau Subsidiarioetan aldagelen eta komunen azalerari dagokiona bete beharko da (2 m² pertsona bakoitzeko).
- Egindako obraren balioari dagozkion onurak ordaindu egingo dira; baita hesia, karga-igogailua, aldamia edo kontainerra ipintzeari dagozkionak ere, horrelakorik jarriz gero.
- Obrak egiterakoan, aurkeztutako eskaeran esandakoa egin behar da.
- Udalak edozein unetan ikuska lezake lanen nondik norakoa, proiektuari edo onartutako eskaerari egokitu zaizkion jakiteko, baimenaren baldintzak bete diren ikusteko, eta orokorrean, betetzea dagozkion ordenantza eta araudiak konplitu dituen jakiteko, bestela legeak esandako neurriak hartuko dira. Esangura horrekin, obretan beti eduki behar da udalak emandako baimenaren aldakia, eta hala balegoke, proiektu teknikoarena.
- Horrez gain, hauxe gogorarazi behar da: lizentzia eskatu duenak agindutakoa betetzeko eta eraikitzaileari betebeharrak zeintzuk diren jakinarazteko erantzukizuna daukala, eraikitzailea edo obragilea baita bete ez diren aginduen ordezko erantzulea.
- Espaloian nahiz galtzadan, hau da, kalean, inoiz ezingo da zaborrik utzi, ezta materialik edo beste inolako tresneriarik ere.
- Kalean kontainerra jartzeko premia badago, horretarako dagokion baimena



Usurbilgo Udala

eskuratu behar da, eta hau lan baimenetik kanpo dagoen gauza bat dela zehazten da. Kontainerren gainean esan beharra dagoena da, kontainerra ezin dela sekula gainezka egon obrako materialez eta zaborrez, eta haren ingurua ere, beti garbi eduki behar dela.

- Obra batean paratu behar den edozein aldazio, bai eraikinaren kanpoaldean bai barnean, aldez aurretik lizentzia edo baimena eskatu beharko da. Baimen horrek ez du zerikusirik oraingo obra lizentziarekin.
- Eremu publikoan lanak egin edo erreminta ekipo bat (konpresorea, iraulkia, etab.) instalatu behar izanez gero, babes-hesia jartzeko baimena eskatu behar da (zehaztu da hori ez dela obra-lizentziarena bezalakoa), hesiaren hedadura eta neurriak adierazi behar dira, eta, eskabidearekin batera, oinplano-plano bat aurkeztu behar da, hesiaren kokalekua zehatz-mehatz deskribatzen duena.
- **Epeei buruzko baldintzak:**
 - Obra lizentzia emateko erabakia jakinarazten denetik, 6 hilabeteko epean hasi beharko dira obrak.
 - Obrak bukatzeko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da.
 - Obra geldi egon ahal izango da, promotoreari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, gehienez, 3 hilabetez.
 - Lizentzia honetan jasotako epeak luzatzeko eskabide arrazoitua egin daiteke.
- **Obrak egitean bete behar diren baldintzak:**
 - Aplikagarria diren Baimen edo txosten bakoitzean jarritako baldintzak bete beharko dira.
 - Jarduketa iragartzeko kartelak instalatu nahi izanez gero, aurretik beharrezko den baimena eskatu beharko da. Iragarkian agertzen diren testuek bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dute.
 - Obren eremuko seinaleetan kontuan hartuko da Euskararen Udal Ordenantzan jasotakoa. Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- **Segurtasunari lotutako baldintzak:**

Zuinketa Akta sinatzearekin bat, eskatzaileak egiaztatu beharko du urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuko 4. artikulua aipatzen duen segurtasun eta osasun azterketa betetzen duela.
- **Instalazio eta zerbitzuen sareei dagozkien baldintzak:**

Obretan zehar kaltetuta gerta litezkeen sareak konpontzeko gastuak osorik



Usurbilgo Udala

ordainduko ditu eskatzaileak.

Eraikina dagoen partzelari eta urbanizatuko den guneari eragin diezaioketen aireko lineak kentzeko gastuak osorik ordainduko ditu eskatzaileak, eta eraikin berriko linea berriak eta energia elektriko, telefono eta gas harguneak lurpetik egin beharko ditu.

Eskatzaileak ordainduko ditu udal saneamendu-sarearekin bat egiteko gastu guztiak. Beti ezberdinu beharko dira ur zikinak eta euri eurak.

- **Obrak bukatutakoan bete behar diren baldintzak:**

Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:

- Industria erabilera duten eraikinetan sutik babesteko instalazioa martxan jarri dela ziurtatzen duten agiriak, gaiari buruzko indarreko legeriarekin ados.
 - Eraikuntza eta hirigintza lanen bukaerako plano digitalizatuak.
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
 - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzazko obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
 - Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
 - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektraindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.
 - 68/2000 Dekretua betetzearen justifikazioa.
 - Usurbilgo Arau Subsidiarioetan ezartzen diren baldintzen justifikazioa.
 - 3/1998 legeak eskatzen duen dokumentazioa.
- Baimena hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Aldez aurretik dagokion Udal zerga ordainduko da.



Usurbilgo Udala

HIRUGARRENA: Jarduera hasi aurretik ALDEZ AURREKO JAKINARAZPENA aurkeztu beharko zaio Udalari, instalazioak erabiltzeko prestatuta daudenean. Jakinarazpen horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- 68/2000 Dekretuaren III. eranskinean ezarritako irisgarritasun-araudia betetzen dela justifikatzea.
- Instalazioa erregistratu izanaren egiaztagiria, RSCIEIren 5. artikulua ezartzen duen bezala.
- Usurbilgo Arau Subsidiarioetan aldagelen eta komunen azalerari dagokionez bete izanaren justifikazioa (2 m² pertsona bakoitzeko).
- 3/1998 legeak ezartzen duen dokumentazioa (62. bis artikulua):
 - Memoria.
 - Teknikari eskudun batek emandako ziurtagiria.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- AGRILAN, S.C. ELKARTEARI, ZUBIETAKO 9. POLIGONOKO 148. PARTZELAKO NEKAZAL BILTEGIA BEHIEN UKUILU BIHURTZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2021-0444

AGRILAN, S.C. (IFK: J75197392) elkarteak, Zubietako 9. poligonoko 148. partzelako nekazal biltegia behien ukuilu bihurtzeko udal baimena eskatu du.

AURREKARIAK

2021eko uztailaren 20ean, Alkateak, 2021/647 dekretuaren bidez, zera erabaki zuen hitzez hitz:

LEHENDABIZI: Agrilan, S.C. (J75197392) Elkarteak, Zubietako 9. Poligonoko 148. Partzelako Nekazal Biltegia Behien Ukuilu Bihurtzeko Aukeraz Egindako Hirigintza Galderari Honako Erantzuna Ematea Nekazaritza Eta Ingurumen Teknikariak Egindako Txostenaren Arabera:

- Udal araudiaren arabera, **jarduera baimengarria da aipatu lurretan.**
- Bete beharreko distantziei dagokionez, jarduera aldaketa bat egonik, ukuiluei ezarritako araudi teknikoa



Usurbilgo Udala

eta distantziak bete beharko dira. (mugakideekiko 10-m ko distantzia)

- Ustiategiari dagokionez, 515/2009 dekretuaren arabera, abeltzaintza ustiategi berrizat hartuko litzateke ukuilu berria. Araudi honen arabera, hurrengo kontutan hartu beharko da:
 - Proiektu teknikoa aurkeztu beharko da.. (515/2009ko I Eranskinean jasotako informazioarekin)
 - Kokapenari dagokionez, aipatzen diren distantziak betetzen direla ziurtatu beharko da, kontutan izanda, Zubieta, nekazaritza-abeltzaintza ekoizpenerako joera duen gun e bezala izendatuta dagoela araudian.
 - Araudiko II eranskineko arau tekniko, higieniko-sanitarioak eta ingurumeneakoak bete beharko dira. Hurrengoak nabarmentzen direlarik.
 - Minden behar bezelako kudeaketa.
 - Zoru iragazkaitzaren beharra.
 - Isurketen kontrolerako URA-ren isurketa baimena eta hobi septikoaren beharra.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta kontuhartzaileari ematea.

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, nekazaritza eta ingurumen teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2022ko maiatzaren 9an AURKAKO txostena eman du. Txostenak honela dio hitzez hitz:

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate jaunari

ZUBIETAKO 9. POLIGONOKO 148. PARTZELAN NEKAZAL BILTEGIA BEHIEN UKUILU BIHURTZEKO UDAL BAIMENA

GAIA: Zubietako 9. poligonoko 148 partzelako nekazal biltegia behien ukuilu bihurtzeko baimena

UDAL TEKNIKARIA: Ibon Goikoetxea Retegi

ESPEDIENTE ZBKIA.: HZ.04/2021-0444

1. AURREKARIAK

- Partzela horretan Usurbilgo Udalak 2005eko urriak 24an



Usurbilgo Udala

negutegiak eraikitzeke aldeko baimena eman zuen. HZ.05 2016/00057 expedientearen baitan, mantenu lanak baimendu ziren eta negutegiaren estalkia berri zen. (Mugekiko 5-m ko distantzia ez du betetzen negutegiak)

- Agrilan S.C.-k 2021eko apirilak 9an kontsulta urbanistikoa aurkezten du, Zubietako 9. poligonoko 148. partzelan ukuilu bat ezartzeko, egungo negutegiaren tokian. Kontsultarekin batera, jardueraren ezaugarri nagusiak jasotzen dituen memoria eta planoak aurkezten dira.
- 2021eko uztailak 27an, 647/2021 dekretu bidez, Usurbilgo Udalak, ukuilua jarduera baimengarri dela jakinarazi zuen, beti ere hurrengo baldintzak betez.
 - Bete beharreko distantzietan dagokionez, jarduera aldaketa bat egonik, ukuiluei ezarritako araudi teknikoa eta distantziak bete beharko dira. (mugakideekiko 10-m ko distantzia)
 - Ustiategiari dagokionez, 515/2009 dekretuaren arabera, abeltzaintza ustiategi berritza hartuko litzateke ukuilu berria. Araudi honen arabera, hurrengo kontutan hartu beharko da:
 - Proiektu teknikoa aurkeztu beharko da.. (515/2009ko I Eranskinean jasotako informazioarekin)
 - Kokapenari dagokionez, aipatzen diren distantziak betetzen direla ziurtatu beharko da, kontutan izanda, Zubietan, nekazaritza-abeltzaintza ekoizpenerako joera duen gunen bezala izendatuta dagoela araudian.
 - Araudiko II eranskineko arau tekniko, higieniko-sanitarioak eta ingurumeneakoak bete beharko dira. Hurrengoak nabarmentzen direlarik.
 - x Minden behar bezelako kudeaketa.
 - x Zoru iragazkaitzaren beharra.
 - x Isurketen kontrolerako URA-ren isurketa baimena eta hobi septikoaren beharra.
- 2021eko abenduak 10ean, Fermin Pinzolas Bidaurrek ingeniari agronomoak sinatutako eta Elkargo Ofizialak ikus onetsitako proiektua aurkezten da, nekazal biltegia ukuilu bihurtzeko..

2. ARAUDIA

- 2013ko irailaren 10ean GAO-n argitaratutako Usurbilgo Udala Arau



Usurbilgo Udala

Subsidiarioak.

Negutegia eta gauzatu nahi den behien ukuilua Zubietako ibarrean kokatzen da.

67. artikuluan, Zubietako ibarrean baimendutako nekazaritza eta abeltzaintzako eraikuntzari buruzko baldintzak zehazten dira.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.

Balio estrategiko altuko lurretan kokatzen da negutegia.

- 515/2009 dekretua, abeltzaintzako ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.

3. AZTERKETA eta PROPOSAMENA

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, eta expedientea Aldundira igorri aurretik, hurrengoa ondorioztatu da.

- Ez da baimengarria negutegi-ukuilu berdinean nekazal eta abeltzaintza jarduerak modu bateratuan garatzea.
- Abeltzaintza jarduera 10-m ko distantzia betez gauzatzen bada ere, garatzen den ukuiluak (eraikinak) ez ditu ezarritako distantziak betetzen. Eraikina bakarra da.

Hortaz, baimen eskaerari KONTRAKO txostena igortzea proposatzen dut, ezarritako baldintzak ez direlako betetzen.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

UDAL INGURUMEN TEKNIKARIA

Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi

Gauzak horrela, nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: AGRILAN, S.C. (IFK: J75197392) elkarteari, Zubietako 9. poligonoko 148. partzelako nekazal biltegia behien ukuilu bihurtzeko udal baimena **UKATZEA** udal tenikariak bere txostenean emandako arraoziengatik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari emango zaio.



Usurbilgo Udala

4.- EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01 / 2022-0118

Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin. Horretarako, Ordenantzaren arabera, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, euskaldunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenak alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratzea.

Usurbilgo Udalak oso garrantzitsu irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2021-2022 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei bekak emateko.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2022.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2022ko euskara ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntzen oinarri Arautzaileak onartzea.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbatekoa, 24.500 €, partida honetatik bideratzea:
1.4200.480.335.00.01 2022 (A 924 - 2022)

Hirugarrena: Oinarriei buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta www.usurbil.eus webgunean argitaratzea.

Laugarrena: Erabaki honen berri kontu-hartzaileari ematea.

5.- AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAT DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01 / 2022-120

Ikusirik



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin.

Aisialdia gizarte bizitza horretako zati bat da eta gure gizartean gero eta garrantzia handiagoa duena gainera.

Aisialdiko begirale eta zuzendariak berariaz eta era egokian prestatua egotea garrantzitsua ikusten du udalak. Are gehiago, prestakuntza hori euskaraz jasotzea garrantzitsua iruditzen zaio udalari.

Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2021-2022 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egin dituztenentzako biztanleei bekak emateko.

Bide honetatik, Usurbilgo Udalak aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenentzat dirulaguntzak bideratzeko dirulaguntza oinarriak prestatu ditu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2022.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2021-2022 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz egin dituztenentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbatekoa, 2.500 €, partida honetatik bideratzea:
1 4400 481 326 00 01 2022 (A 925-2022)

Hirugarrena: Oinarriari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta www.usurbil.eus webgunean argitaratzea.

Laugarrena: Erabaki honen berri kontu-hartzaileari ematea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.